

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 19ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/201 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Akzio zibil eta penalak egikaritzea 1177/2020 Aurretiazko Eginbideetan, zeinak Gasteizko instrukzioko 4 zenbakiko epaitegian aztertzen ari baitira, ustez delitu bat egin delako, ondare historikoa kaltetzea eta aztarnategi arkeologikoan espolioa egitea, alegia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onespena ematea XI. Legegintzaldiko (2019-2023) Foru Kargu Publikoen Katalogoa onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 3ko 762/2019 Erabakia aldatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Deportivo Alavés klubari Arabako Domina ematea.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onespena ematea 30.32 programako 2. kapituluari dagokion lotura mailan kreditua atxikitzeari, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei aurre egiteko; zenbatekoa: 400.000 euro.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea foru sektore publikoko 201eko ekitaldirako urteko kontratazio plana.

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea gastua xedatzeko fasean jartzea Arabako Batzar Nagusien 2021eko funtzionamendurako partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea "Erakunde konpromisoak" izeneko aurrekontu partida "baimendua eta xedatua" fasean jartzen duen espedientea.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea "Arabako Lurralde Historikoan eskaeren arabarako bidaiarien garraio zerbitzua"ren likidazioa eta fidantzak itzultzea. Loteak: Lautada ekialdea eta Lautada mendebaldea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea foru arau proiektua, zeinaren bidez berresten baita Nafarroako Foru Komunitatearekin hitzarmen bat izenpetzea, bidaiariak errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko garraio publiko erregularraren arloan, haien emakidetako trafiko jakin batzuei dagokienez.

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea foru arau proiektua, zeinaren bidez berresten baita Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmen bat izenpetzea, A-3700 (Bilbo-Gasteiz) errepideko bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publiko erregular bateratua elkarlanean kudeatzeko, emakida bidez.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Onestea Gasteizko Udalarekin lankidetzarako esparru hitzarmen bat izenpetzea, gizarte zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeko.